

Egia zion!

Euzko Gaztedi, 7. zk., 1948-11: 9-10.

Ura upela, ordea! Borobil-borobila bera; baño egurrezkoa ez...*

"Tantoa" deitzen genion, izen-goitiz; bera ikusi ta olio tanto mardul baten didir koipetzua gogora etortzen zalako, nonbait.

Moskorkeria alperkeriaren besazpitikan erantzita bezela beti ibili oi bada, ere, etziran alkarrekin "Tantoa"ren lagun astelenetan baizik. Egun bereziak zituan gixaxoak igande, larunbat eta astelen egunak. Ura irukoa, noski!... Ez omen zegoan izen xamuragorik egutegiko Done guzien artean... Kepa Deunaren eguna, ba'da ere... Bañan IGANDEA, larunbata aurre ta astelena urren zituala, urtean bein bakarrik ospatuko ba'litz!... ilko omen zan gizajoa!...

Langile zintzoa bera, oso trebea, beste edozein on añekoa lantegian, baño... "larunbat gaba edateko egiña da, igande guzia sagia bezela puztutzeko geritu dan eguna ta... astelena bi egunetako loak egiteko izentatu zena"...

Alvarez dela, larunbatean eldu bearrean asteko beste egun batean EUSKADI'ko erritxo artara etorri izan bazan, etzuan olako itz-biderik emango; beiñere etorri izan ez ba'zan gutxiago ta bere izenik ezagutu ere izan ez ba'genduan poza baño pozago. Bañan, ara nola diran gertaerako udarako larunbat arratz atean azaldu zan, berandu arte eguzkiak gure lur gozoa berotzen duan urtearoan.

Erriko belarri-motz guziak bere zai zeuden bide nagusiaren alde batera dagoan [?] ardanegiaren aurrean, "Tantoa", beti lez, bere lagun batzugaz, zer ikusi edo zer edan zai. Ondo bete zituan onek lanetik urten ezkeroztik igaro ziran bi ordu aiek!...

Ardo usaia nabaitzen zuan bezin laizter zuan abean txistua, baso ardoa eskuetan artzen zuan bezi aguro begiak dirdiraz. Orain, dabanako, bixiguak bezala gorrituta zauzkan; sudurra, ardoz itotako marrubia bezin mardul da gorri ta txapela ziaro okertuta, Txapela nola, ala "Tartoa"; txapelarekin batera okertzen zala derizkiot nik, ardo-neurria balitz bezi zuzen.

Berebila eldu zanean ixildu ziran ango abotzak. Gure españar ori ari da orain, erdi parrez, bata ta besteari eskerrak ematen. Gure "Tantoa" ere bai, danen artean buru luzatuta ta begiak atera bearrean dituala, orrenbeste izparringietan erabiltzen duten izenaren jabea zain lirdin ote dan jakin naiean.

– Irekin ez dik itzegingo! –dio, gaiztoz, bere lagunetako batek.

– Ez da bear ere!! –dio asarre bere txapelari jira-bira batzuek eman da bere ikus-lekua bat-batera utziaz. –Ez niok maketarik laguntzaz artzeko irrikiturik, i lez!...

– Ni! Ez orixe!. Lagunduko diat baxo-erdi bati zurrut legun bat egiteko asmoetan ba'aiz.

– Artara niak...

* Arazo teknikoengatik, idazlan hau ez dago osorik. Hutsuneen lekuan '[?]' adierazpidea erabili dugu.

– Ez diat i asarrezteagatik esan, "Tantoa" –dio orain lagun– baño egia dek, gu ezelakoarekin itzegiteko gizonak ez dituk kopet aundi oiek.

– Ia, Kalixto, egon adi ixilik; olakoarekin ez diat ezer mai, bañan bere paparrera bi itz erderaz botatzeko bildurrik ez diat beintzat nik...

– Ba' litekek bañan...

– Benetan... ez al' derizkiok ala?...

– Etxakiat ba' gu bezelako arloteak non nai ere...

– Arrano-pola, ar ori nik aterako diat, Kalixto! Ikusiko dek "Tantoa" nor dan... Zer jokatuko degu...

– Ja, jaa... Olakorik!... Goazen, goazen, erdi bati ortzak erakustera!

– Bañan... egietan diotela!... Zer dijoa!... gaur gabeko ardoa!

– Galtzekotan ba'aiz, egiña!

An dijoazte biak berriz. Egon aldi motxa egiteko etorri da, nonbait Alvarez del Vayo atzerrian arkitzen diran aberkideei ematen zaien askenengo besarkadak zabaltzen ari da.

"Tantoa" k ez ditu danak beroki. Erdi lotzatuta bezela an jarri da bi edo irugarren mailan zerbait egin naiean. Txapela zuzendu du; an ari da indarka bere arpegia pixka bat goibeldu ta bere begiakin argi ikusi naiean...

Ez da oraindik ausartzen da beste laizter ba'dijoa... Begirune bat bota du aldamenean, Kalixto ikusten ote duan edo... an dago ondoan, parrez, maltzurra!...

Altxa du ontan besoa ta biatz batekin beragan etortzeko kiñua egiten dio españarrari. Onek beriala ikusi ez arren, bere alboan daudenak berari begira jarri dira ta noizpait ikusi bear Alvarez del Vayo'k gure gizona.

Ba'dator au erdi parrez... Au "Tantoa" ren bildurra... Ezer egiteko betarik gabe an dauka aurrean.

– ¡Qué desea buen hombre! –dio "Tantoa" ri, amabost egun barru autarki eguna dala gogoratuaz.

– Quería hablarme?. ¡Diga, no tenga miedo!...

– ¿Yo? –urten zitzaion gizarajoari, berriz txapela okertuta...

– Vd, me llamó; no es eso?...

– ¿Yo? ¡No!...

– Y porqué me hizo Vd seña de que me acercara –dio "Tantoa" k egindako kiñu bera egiñaz –porque me hizo así...

– Y –dio "Tantoa" k, begiak bat-batera argiz beterik, biatza EZETZ ezateko bezela erabiliaz –... y Vd. porqué no me ha hecho así!...

Erritar [Martin Ugalde]